

Ura eta Urotz

UROTZ

- Iturriak, errekak
- Izainusuna
- Putzuak, igerilekuak
- Errotak
- Askak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa



ITURRIAK

Urotzen badira hainbat iturri, baina “laborari andrearen” iturria egin zen arte, bat bera ere ez zegoen herrian berean.

Gure inguruan ohikoak dira Mairuiturri izenekoak (gaztelaniaz “Fuente del Moro”). Mairua izaki mitologikoa da, bereziki zubiak eta iturriak eraikitzen dituen. Urotzen ere bada “Fuente de los Moros” (mairu iturria). Harlandu dotorez egina da. Aurrean zaldu bat du, zuhaiztia gaur egun eta XX. mendearen parte handi batean auzo baratzeak izanikoak, “Regata de las Huertas” izenekoak (baratzeetako erreka) urez hornituak. Erreka horrek urak hartzen ditu, halaber, Sotoburuko frailearen iturritik. Aipaturiko eraikinaren ondotik pasatzen da erreka hau.



Txorrotxagako erreka, Argingoko errekaekin bat egin eta Urozko dermioan sartzen denean, Mendiorozko erreka izena hartzen du. Herriaren iparraldetik pasatzen da, mendebalde-ekialde norabidean, Lizoain aldera. Hala, Uroztik beheiti, “Barranco de Uroz” (Urozko sakana) izena hartzen du.

Azpako mugaren ondoan dago “Fuente de Masala” (Masala iturria). Alorrari eta erreka bati ere izena ematen die. Beheitiago, bat egingen du Oiankoko errekaekin eta Ihelzko menditik beheiti datozen gainerako errekekin. Denek bat egiten dute Urozko mugetan, “barranco del Soto” (zalduko sakana) izenekoan.

Aipaturiko baratzeetako erreka, herriko etxeen hegoadetik pasatu ondotik, urte erdiz, “Los Soros” (Soroeta) dermioko erretenaren urak ere hartzen ditu, “barranco del Soto” (zalduko sakana) izenekora bidean.

Urotzen, halaber, hego-mendebaldeko muga, bada beste erreka bat: Amaia erreka.

Beste iturri txiki batzuk ere bazeuden Urozko lurretako hainbat tokitan, hala nola Tejeria (teileria).


IZAINUSUNA edo POZO de las SANGUIJUELAS

Urari dagokionez, Urotzen dagoen baliabiderik bereziena da Izainusuna izeneko osina. Ihelzko bidea hartuta iristen da bertara. Herri-lurretako labore sail batean dago, Punoberdean.

Izainusuna hezegune txiki bat da, eta bertan akuifero bat azaleratzen da. 70eko hamarkadan, udalaren dirulaguntzarekin, erabat drainatu eta laboratu zen. Alabaina, bere izaera kausa, euria ausarki egiten zuenean berriz ere urez betetzen zen.

Mende berrian, mundu ikuskera aldatua zela, udalak sustatu zuen osina berreskuratzea aisialdirako gune bihurtzeko. Eginak ziren drainatzeak ixteko ahalegina egin zen, jatorrizko osinaren parte bat induskatu zen, zuhaitz eta zuhaixkak landatu ziren inguruan (XX. mendean ez zen halakorik eta 5000 m²-ko gune bat hesitu zen idoia babesteko. Gainera, bide txiki bat eraiki zen eta bi banku jarri ziren atsedenerako eta behaketarako. Naturak bere bidea egin zuen, eta berehala hasi ziren ikusten bertan flora eta fauna berriak.

2018an, berriz ere induskatu zen jada beteta zegoen osina eta eremu babestua 10.000 m²-ra arte handitu zen, zuhaixkak eta zuhaitzak landatu ziren berriz zerrenda berri batean, eta zenbait mahai eta banku ezarri ziren aisiarako sarrera-eremuan, bai eta panelak ere, bertan beha daitezkeen animalia-espezieen marrazkiekin: ornogabeak (kardu-vanesa tximeleta), hegaztiak (amilotxak, kaskabeltzak, zozoak, txinbo kaskabeltzak, txantxangorriak, harkaitz-txolarreak, txonta txikiak), anfibioak (apo arruntak edo apo pikartak) eta narrastiak.



PUTZUAK ETA IGERILEKUAK

Herrian hainbat etxek dituzte putzuak. Badira etxe barnekoak eta baita kanpokoak ere, baratzeakoak.

70eko hamarkadaren bukaeratik hainbat igerileku partikular egin dira.

ERROTAK

Urotzen ez dago errotarik.

ASKAK

XX. mendean, batez ere lehen erdian, etxe anitzek zuten azienda. Herrigunean ez zen askarik, baina aziendari edaten ematen zitzaion Sotoburuko “Fuente de los Moros” (mairu iturri) ondoan.

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Izainusunari gaztelaniaz gaur egun “Pozo de las Sanguijuelas” esaten bazaio ere, euskarazko izena du zaharrena: ***Yzain ussuña***, *Izai(n)*, erdaraz ‘sanguijuela’, *osin*, erdaraz ‘poza’.

Urotzen urarekin lotutako beste termino batzuk ere badaude: Mariturri, Usuña, Iheltz iturria, Iturburua, Iturraldea, Iturrondoa eta Iturri.

UR-HORNIKETA

Joan den mendeko lehen herenera arte, edateko ura Sotoburuko iturritik hartzen zen. Emakumeak izaten ziren, gehienetan, ura garraiatzen zutenak. Maiztasun handiz.

Urotzera ura 1932an ekarri zen, Gregorio Alemán kontzejuko buru zela, Mondela y Pastor enpresaren bidez. Mendiorotz eta Erredin artean dagoen Aspurotz eremuko iturburutik ekarri zen. 20 metro³-ko edukierako biltegi bat eraiki zen Mokarteko alor batean, herria baino 80 metro goragoko toki batean.



1972an, 50 metro kubikoko biltegi berri bat egin zen, biltegi txiki zaharra konpondu zen eta biak elkarrekin komunikatuta daude. Aspurozko ur-bilketa ere hobetu zen, eta kontagailuak jarri ziren etxeetan.

2013az geroztik, ura Mendinueta Soluziotik dator. Itoizko ubidetik hartzen da eta Urrotz-Hiriko Argonga mendiko biltegitik hornitzen da mankomunitate guztia.

Herrian ez dago lorategietarako ureztapen-instalaziorik, baina plazan hiru ur-hargune daude, eta urbanizazio berrian beste bi.

LATSAGIAK

Urotzen ez zen eraiki herri latsagirik; aitzitik, ura herrira ekarri zenean, zuzenean eraman zen etxeetara eta, etxeetan, nork bere latsarria zuen, Etxeetan obrak egin ahala, galduz joan dira. Gaur egun, Dominguezenean eta Bravorenean mantentzen dira.

1030eko hamarkadan bertan, bidea eta horniketa elektrikoa egin ziren, 100.000 pezeta inguruko aurrekontuarekin. Herriak bere ondasunak bazituen ere (herri-lurrak), inguruko herrietako jende aberatsari maileguak eskatu behar izan zitzaizkion. Urari buruz esaten zena zen *“A zer zulotan sartzen ari diren Urozkoak”*.

Aspurozko iturritik ura ekarri zenean, eztabaida izan zen, izan ere, lur haren jabeak, Erredingo Fernandorenekoak, ez zuen ura utzi nahi. Garai hartan indarrean zen legediarekin ezin zuen ukorik eman, Erredinek ura beste iturri batetik hartzen baitzuen, baina baldintza bat jarri zuen: Urotz bidean urak jarri aurretik bere aziendarendako aska bat paratzea. Halaxe egin zen. Aziendaren joan etorriak maiz hausten zuen uraska; hala, uroztarrek auzolanean joan behar izaten zuten konpontzera, ura herrira ekarriko bazuten. Behin, uroztar batek, nazkaturik, zurezko ziri bat sartu zuen askako sarbidean, mazoarekin emanaz, ardiek ez zezaten izan jendearekiko lehentasunik.

Kontsultatutako iturriak:

Udaleko eta kontzejuko artxiboak

Itzagako Mankomunitateko webgunea

<http://www.izaga.es/lizoain-arriasgoiti/presentacion/>

Herritarren kontakizunak.